BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

4164

EBAZPENA, 2011ko abuztuaren 31koa, Lehendakaritzako idazkari nagusiarena, 2011n sei beka emateko deialdia egiten duena. Bekak Garapen Lankidetzaren arloan profesionalak espezializatzeko dira.

Garapen Lankidetzaren arloan profesionalak espezializatzeko bekak arautzen dituen ekainaren 17ko 138/1997 Dekretuak (1997-07-02ko EHAA, 125. zk.) bere 2.1. artikuluan ezartzen duenez, Lehendakaritzako idazkariak egindako deialdiaren bidez deituko dira urtero beka horiek, eta kasu guztietan adierazi beharko dira deialdiaren helburua, bekaren iraupena, beken zuzkidura eta ordainketa, eskabideak aurkezteko tokia eta epea, eskabide-ereduak eta esleipena. Dekretuaren 11.1 artikuluak dioenez, halaber, Lehendakaritzako idazkariak ebazpen bidez esleituko ditu bekak.

Deialdia egiteko eskumenari dagokionez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu, arautu eta abiarazi ondoren (Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen ekainaren 19ko 5/2008 Legea; Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko erregelamendua onartzen duen martxoaren 23ko 95/2010 Dekretua; eta Agentziaren jarduerak abiaraztea arautzen duen azaroaren 23ko 310/2010 Dekretua), eta ikusirik Jaurlaritzaren Lehendakaritzari esleitu zaiola garapenerako lankidetzaren arloa, eta lehendakaritza horrixe atxiki zaiola Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia izeneko zuzenbide pribatuko erakunde publikoa (EAEko administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko Lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretua bigarren aldiz aldatzeko Lehendakariaren urtarrilaren 18ko 6/2011 Dekretuaren lehenengo eta bigarren artikuluak), Lehendakaritzako idazkari nagusiak egin behar du diru-laguntzetarako deialdi hau.

Halere, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariak erabakiko du nola kudeatu aipatutako laguntzak eta arlo honetan eman beharko diren ebazpenak. Horretarako, bi lege-xedapen hauek beteko ditu: batetik, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duen ekainaren 19ko 5/2008 Legearen 11.2 artikulua, eta bestetik, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko Erregelamendua onartzen duen martxoaren 23ko 95/2010 Dekretuaren 11.1 artikulua.

Azkenik, adierazi behar da deialdi honek Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren oniritzia jaso zuela 2011ko otsailaren 18an egindako bilkuran.

Horren arabera, honako hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Deialdia.

Garapen Lankidetzaren arloan profesionalak espezializatzeko sei bekatarako deialdia egitea, onartu diren eta eranskin bakarrean adierazten diren oinarrien arabera.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ebazpen honetan eta Garapen Lankidetzaren arloan profesionalak espezializatzeko bekak arautzen dituen ekainaren 17ko 138/1997 Dekretuan aurreikusi ez den guztian, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatutakoa aplikatuko da.

Bigarrena.– Ebazpen honen kontra, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal zaio Lehendakaritzako idazkari nagusiari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abuztuaren 31.

Lehendakaritzako idazkari nagusia,
JOSÉ MANUEL SALINERO FEIJOO.

ERANSKINA

GARAPEN-LANKIDETZAREN ARLOAN PROFESIONALAK ESPEZIALIZATZEKO BEKEN 2011KO DEIALDIAREN OINARRIAK.

Lehenengoa.- Beken xedea eta iraupena.

Ebazpen honen xedea Garapen Lankidetzaren arloan profesionalak espezializatzeko eta prestatzeko 2011ko ekitaldirako sei bekaren deialdia egitea da. Bekok garatzeko aldia hamabi hilabetekoa da eta, esleitu ondoren, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak zehaztuko du noiz hasiko den aldi hori.

Bigarrena.- Eskatzaileek bete beharreko baldintzak.

Ekainaren 17ko 138/1997 Dekretuko 6.1 artikuluaren arabera eta Eusko Jaurlaritzaren 1998ko maiatzaren 19ko Akordioak ezarritakoa jarraituz, Beka eskatzaileek ondorengo baldintza hauek bete beharko dituzte:

1.- Administrazio-egoitza Euskal Autonomi Elkartean edukitzea bekak deitzen diren 2011ko urtarrilaren 1a baino lehen.

2.- Lizentziatua izatea. Lehentasuna izango dute Zuzenbide, Ekonomia, Kazetaritza eta Soziologia arlokoek.

3.- Lehendik Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargurako mota berdina edo antzeko bekarik lortu ez izana.

Hirugarrena.- Diru-zuzkidura eta ordainketa.

1.- Beken diru-zuzkidura honako hau izango da:

a) 18.000 euro Euskal Autonomia Erkidegoan garatu behar diren sei beketako bakoitzarentzat (108.000 euro guztira).

b) Halaber, ekainaren 17ko 138/1997 Dekretuko 3. artikuluko d) letran jasotako prestakuntza egiteko aurreikusitako guztizko gastua 10.000 (hamar mila) eurokoa izango da bekadun guztientzat.

2.- Honelako aurrekontu-banaketa izango du kredituak:

a) 80.200 euro 2011ko ekitaldiaren kontura, ordainketa-kreditu gisa, eta

b) 37.800 euro 2012ko ekitaldiaren kontura, konpromiso-kreditu gisa.

3.- Ordainketa:

Beka esleitu ondoren eta aldez aurretik bekadunak onartu eta lanean hasi ostean egingo da lehenengo ordainketa, eta bekaren zenbatekoaren % 25 izango da. Bigarren ordainketa bekaren zenbatekoaren % 40 izango da, eta beka baliatzen hasten denetik lau hilabete igaro ondoren egingo da, aldez aurretik bekadunak bere jardueren garapenari buruzko aldizkako txostena aurkeztu badu. Hirugarren ordainketa bekaren zenbatekoaren % 25 izango da, eta bigarren ordainketatik sei hilabete igaro ondoren egingo da, bekadunak dagokion aldizkako txostena aurkeztu badu. Laugarren eta azken ordainketa bekaren zenbatekoaren % 10 izango da eta ekainaren 17ko 138/1997 Dekretuaren 3. artikuluko a) idatz-zatiak aipatzen duen azterlan edo ikerketa lana aurkeztu eta onartu ondoren egingo da.

Laugarrena.- Eskabideak aurkeztea.

Eskaerak Ebazpen hau EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasi eta egutegiko hilabeteko epean aurkeztu beharko dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako edozein modutan, honi erantsita aurkeztutako eredu normalizatuaren arabera, honako honi zuzenduz:

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia.
Nafarroa kalea, 2
01007 Vitoria-Gasteiz

Bosgarrena.- Esleitzea eta argitaratzea.

Ekainaren 17ko 138/1997 Dekretuaren 9. artikuluan aurrez ikusitako Aukeraketa Batzordeak bekak nori esleitu proposatu dio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Zuzendariari, eta hark ebazpenaren bidez esleituko ditu bekok. Ebazpen horrek amaiera emango dio administrazio-bideari, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Ebazpen honen babespean aurkeztutako eskabideen ebazpena emateko gehienezko epea eskabideak jasotzeko epea amaitu eta hiru hilabetera amaituko da. Epe hori pasatu ondoren interesatuak inongo ebazpenik jaso ez badu, eskabidea gaitzetsitzat jo daiteke, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Seigarrena.- Bekadunen betebeharrak.

Bekaren eskaera aurkezteak Garapen Lankidetzaren arloan profesionalak espezializatzeko bekak arautzen dituen ekainaren 17ko 138/1997 Dekretuan eta deialdia egiteko den ebazpen honetan xedatuta dagoena onartzeko konpromiso formala dakar berekin.

Bekadunak ekainaren 17ko 138/1997 Dekretuan eta ezar daitekeen legeria orokorrean jasotakoa betetzen ez badu, bertan behera utziko dira jaso gabeko diru-kopuru guztiak, eta ordura arte ordaindutakoa eta horren interes legalak itzultzeko eskatuko zaio, betiere Dirulaguntzak itzultzeko prozedura orokorra ezartzen duen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren II. tituluaren arabera.

Behar bezala justifikatu daitezkeen arrazoiak direla eta bekadunak bekari uko egiten badio, hirugarren oinarriak aipatzen dituen eskubideak galduko ditu baliatu ez den bekazatiari dagokionez, eta ordura arte burututako azterlana aurkeztu beharko du.

ESKABIDE-EREDUA 2011

GARAPEN-LANKIDETZAREN ARLOAN PROFESIONALAK ESPEZIALIZATZEKO BEKAK

ESKABIDEAREN ERREGISTRO-ZENBAKIA.....

1. INPRIMAKIA

Zuzendari hori:

Izenpetzailearen datuak (bi abizen eta izena): .....,
NAN zk.: ....., Jaioteguna: .....(e)ko.....aren.....a,
Helbidea: ……..……Herria: ..... PK: .....
Probintzia: ....., Titulazio akademikoa: .....
Lehendakaritzako idazkari nagusiaren 2011ko.....aren.....(e)ko Ebazpena baliatuz (2011ko.....aren.....(e)ko EHAA,..... zk.), zera

ESKATZEN DUT:

Garapen Lankidetzaren arloan profesionalak espezializatzeko beka bat eman diezadazula. Honekin batera doan eskabidean adierazi ditut nire datuak.

....., 2011ko.....aren.....(a).

Sin.: _____

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAREN ZUZENDARIA

2. INPRIMAKIA

CURRICULUM VITAE

Abizenak:.....

Izena:.....

NAN:.....Jaioteguna:.....

Helbidea:.....

Herria:.....

Probintzia:..... PK:.....

Telefonoa:.....

IKASKETAK:

Lizentziatua (zehaztu zertan):.....

Zentroa:.....

Ikasketak amaitu zitueneko data:.....

Ikasketen ziurtagiriko kalifikazioa:.....

GRADUATU ONDOREN EGINDAKO IKASTAROAK:

Titulua:.....

Zentroa:.....

Iraupena:..... Lortutako kalifikazioa:.....

EGINDAKO LAN ETA ARGITALPENAK:

Izenburua:.....

Non argitaratua:..... Data:.....

EGIAZTATUTAKO HIZKUNTZAK (H: hala-moduz, O: ondo, Z: zuzentasunez).

HIZKUNTZA	IRAKURRI	HITZ EGIN	IDATZI

BESTELAKO IKASKETA EDO IKASTAROAK:

Titulua:.....
Zentroa:.....
Iraupena:..... Lortutako kalifikazioa:.....

JASOTAKO BEKAK ETA LAGUNTZAK:

Erakundea	Bekaren izena	Hasiera-data	Iraupena

INFORMATIKA-EZAGUTZAK:

.....
.....
.....

LANBIDE ESPERIENTZIA:

.....
.....
.....

BESTELAKO DATU INTERESGARRIAK:

.....
.....
.....

OHARRA: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak jakinarazten dizu formulario hau betetakoan lortutako zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko direla, Datu Pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa kontuan izanik.

Fitxategi horretan bildutako datuak ezin izango zaizkie hirugarren batzuei laga; gainera, fitxategiaren erabilera, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak sustatutako laguntzak kudeatzearen erabilera esklusiboarekin dago lotuta.

Nahi izanez gero, Legean aurreikusitako eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzu, fitxategi horren arduradun den Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari idazki bat igorrita (Helbidea: Nafarroa kalea, 2, 01007 Vitoria- Gasteiz).

AURKEZTU BEHAR DIREN AGIRIAK

a) Erroldaren ziurtagiria, lankide boluntarioa EAEko edozein udalerritan 2011ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik bizi dela egiaztatzeko.

b) Karnet neurriko argazki bat.

c) NANaren fotokopia.

d) Curriculum vitae-a, espediente akademikoa barne hartuta.

e) Lizentziatua izatea egiaztatzen duen agiria.

f) Egindako ikasketei eta esperientzia praktikoari buruzko ziurtagiriak, lortu nahi den bekarako garrantzi berezia baldin badute.

g) Lehenago beka hauen onuradun ez izana adierazten duen zinpeko aitorpena.

h)Zigorrak ezartzen duen aldian honako zigor hauek jaso ez dituela ziurtatzen duen zinpeko edo erantzukizunpeko aitorpena: Euskadiko Aurrekontu Orokorren kargurako diru-laguntzak lortzeko debekua diru-laguntza edo laguntza publikoen arloko arau-hausteagatik ezarritako zigor irmo baten ondorioz, zigor administratibo edo penalik betetzen ari ez dela sexuarengatiko diskriminazioan erortzeagatik, eta debeku horrekin zigortuta ez egotea Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Legearen arabera.